

# Gutxienez 17 hildako eta ehundaka zauritu eragin ditu lurrikara batek Taiwanen

Uharteko erdikaldea izan zen eskualde kaltetuena, eta hiriburuan hiru eraikin erraldoi eraitsi ziren

Agentziak / Taipei

Lurrikara indartsu batek Taiwan uhartera astindu zuen bart, goizaldeko ordubiak aldera. Hiru errepliketatik indartsuenak 8,1eko intentsitatea izan zuen Richter eskalan, Estrasburgoko Behatokiaren arabera. Lerrok idazterakoan, gutxienez 17 dira ezbeharrean hildakoak eta hainbat herritar hondakinen artean daude atera ezinik,

HIRU erreplika izan zituen lurrikarak Taiwan uhartera astindu zuen bart goizaldean (01:47tan eta 02:03ak artean, 19:47ak eta 20:03ak artean Euskal Herrian). Uharteko Taipei hiriburuko hiru eraikin —12 solairukoa bat, zortzikoa bestea— eraitsi ziren lurrikararen ostean eta uharteko erdigunea da kalte gehien jasan duena.

Epizentroua irlaren erdikaldean kokatu zen, Nantou hirian, Taipei hiriburutik 144 kilometro hegoaldera. Astindu indartsuenak 8,1 graduko intentsitatea izan zuen Richter eskalan, Estrasburgoko (Frantzia) Behatokiak jaso zuen neurketaren arabera. Puli hiria —uharteko erdikaldea, nekazal gunea— izan da astinduak gehien kaltetu duena. Ehundaka etxe birrindu zituen lurrikarak hiri horretan Taiwango irratiaeren arabera.



TAO-CHUAN-YEH / EPA

12 solaruko hotela 'etzanda' geratu zen 8,1 graduko intentsitateko lurrikara gertatu ostean.

Iturri beraren arabera, Taipei hiriburuan hiru eraikin 'etzanda' geratu ziren lurrikararen ostean. Eraikin horietako bat Changhua erietxea da, uharteko erdikaldean.

Lehen lurrikara gertatu eta bi ordura astindu berria somatu zen uhartean, herritar asko jada kalean zeudela, beldurtuta, astindu berriak sahiestu asmoz. Iturri beraren arabera, lurrikarak 17 hil eragin zituen gutxienez, eta

beste 20 pertsona etxeetatik ezin atera zeuden, eraitsitako eraikuntzetako hondakinen artean. Hil eta zaurituak askoz gehiago izan daitezke uharteko arduradunen arabera, lurrikararen uanean biztanle guztiak lotan baitzeuden. Laguntza zerbitzuek arazo anitz dute ezbeharrean zauritutakoei laguntzeko, hirietan argi indarririk gabe geratu direlako.

Uhartean kaosa zen nagusi

astinduaren ostean. Sorospen Zerbitzuetako arduradunek lurrikarak eragindako kalteen benetako neurria ezagutzeko egunsentiararte itzarotea beste erremediorik ez zuten.

## Tsunamien arriskua

Azken 10 urteetako lurrikara indartsuena da Taiwanen. Golden hiriko (Colorado, EEBB) Zentru Geologikoak

jakinarazi zuenez, lurrikara lur zorutik 50 kilometroko sakontasunean gertatu zen eta horrek Japonia eta Filipinak alboko irletaraino heldu daitezkeen tsunamiak —olatu erraldoiak—eragin ditzakeela ohartarazi dute.

Hilabetean gertatzen den bigarren lurrikara indartsuena da. Duela hilabete 7,3 graduko lurrikara batek Turkia astindu zuen, 15.000 heriotz eraginda.

## Kofi Annan: «Nazioarteak esku hartu behar du giza eskubideak urratzen diren tokian»

■ Nazio Batuen Erakundearen 54. Biltzar Nagusia bildu da New Yorken

Agentziak / New York


Gutxienez 65 estatuburu eta ministro bildu dira, New Yorken, NBE Nazio Batuen Erakundearen 54. Biltzar Nagusia. Inaugurazio hitzaldian, giza eskubideak urratzen diren tokian esku hartzeko eskubidea defendatu zuen Kofi Annan idazkari nagusiak. Horrez gain, NATOk kideak ere kritikatu zituen.

Annanek adierazi zuenez, «munduko edozein tokitan giza eskubideen bortxaketa gertatzen denean, nazioarte-

aren esku-hartze eskubidea defendatzen dut». Giza eskubideen urratzerik ez duela gertatu behar azpimarratu zuen Annanek. Defentsa horrez gain, NATOk estatu kideei ere kritika egin zien. Annanen arabera, NATOk, edozein interbentzio egiteko, «NBEko Segurtasun Kontseiluko baimena behar du». Kritika hori, gehienbat, NATOK Kosovoko gerran egin zuen esku-hartzeari zuzenduta zegoen. Izan ere, Kosovoko interbentzioak eztabaida sortu du.

## Nazioarteko egungo arazoan irtenbide bila

Estatuburuak nazioarteko arazoei irtenbidea bilatzen ari dira. Arazoen artean, Ekialdeko Timor dago. Bestetik, Israel eta palestinarren arteko nagoziazioei bultzada ematen saiatuko dira. Kolonbiako narkotrafikoaren aurka egiteko ere, nazioarteko laguntza ekonomikoa emango da, eta Venezuelako Hugo Chavezen gobernuaren aldaketa berriak ere aztertu dituzte, besteak beste.



STUARTE RAMSON / AP

Kofi Annan Nazio Batuen 54. Biltzar Orokorrean, atzo, hitzaldia egiten.